

Gaztelua konpontzen



Hau Barinaga familia da. Familia honek gaztelu bat erosi du. Gaztelua Arabako herri txiki batean dago. Oso zaharra da eta horregatik konpondu behar dute. Gaur goizean gaztelua konpontzen hasi dira, baina oraindik iturgina falta da eta ez dute urik.

—Itxaron. Atea jotzen ari dira...

—Kaixo. Iturgina naiz.

—Aita, iturgina etorri da —dio alabak.

—Aurrera. Bazen garaia! —dio aitak. Gaztelua jendez beteta dago. Jende guztia lan egiten ari da.

—Metroa behar dut —esaten du arotzak.

—Berehala emango dizut —dio aitak. Igeltseroa hormak konpontzen ari da, baina masa prestatzeko...

—Ura behar dut —esaten du igeltseroak.

—Ez dago urik —dio elektrikariak.



—Laster konponduko dut —dio iturginak. Iturginak aberia aurkitu nahi du eta, bapatean:

—Zer da hau? Kobazulo bat —oihukatzen du iturginak.

Iturginak zerbait topatu du, baina ez du ezer ikusten.

—Tori argia, ilun dago eta —esaten du aitak.

Langile guztiek kobazulo hitza entzun eta korrika-korrika joan dira ikustera. Harrituta daude...

—Altxorra! —dio neskak.

—Harrigarria da! —esaten du tapizariak.

—Hau zortea! —dio aitak.

Zer egingo dute altxorrarekin? Ba dakizu?



GAZTELUA KOMPONTZEN

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Non dago gaztelua?

.....

2.- Zergaitik konpondu behar dute gaztelua?

.....

3.- Zertan hasi dira gaur?

.....

4.- Zerez beteta dago gaztelua?

.....

5.- Zer behar du arotzak?

.....

6.- Zertan ari da igeltseroa?

.....

7.- Zertarako behar du igeltseroak ura?

.....

8.- Zer egin nahi du iturginak?

.....

9.- Nola dago kobazuloa?

.....

10.-Zertara joan dira langile guztiak?

.....